



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko martxoaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko martxoaren bostean, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2024ko otsailaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko otsailaren 29a

3. ERABAKIA: ENARGIA KOOPERATIBAREN KAPITALEAN PARTE HARTZEA

(9.1 nomenklatura)

ENARGIA 2018ko urrian sortutako kooperatiba da. Frantziako Estatu ministerioak, trantsizio ekologiko eta solidarioaren ministroak 2019ko apirilaren 24ko ordenantza bidez baimena eman zion elektrizitatea erosi eta azken buruko bezeroei saltzeko, baita sare-kudeatzaileei ere lituzketen galerentzat. Frantziako energia kodeko L 333-1 eta ondorengo artikulua eta R. 333-1tik R. 333-16rakoak zehaztu xedapenak bete behar ditu.

Sortu denetik, energia berriztagarriak sustatzea eta garatzea, energia kontsumoa kontrolatzera akuitatzea eta herritarrek energiaren jabe izatea ditu eginkizun nagusi. ENARGIAren beste helburuetako bat da bertako energia berriztagarrien ekoizleei zuzenean eta eskusiboki energia erostea, zirkuitu laburrak hobetsiz. Ondorioz, %100 berriztagarria den elektrizitatea eskaintzen die bere bezeroei.

2019ko uztailaren 1ean eskaintza abiatu zuenetik, kooperatibak jada 4000 bezero baino gehiago ditu.

Gainera, ENARGIA interes kolektiboko kooperatiba da (SCIC) eta gaur egun 1000 sozio inguru ditu. Enpresaren estatutua dela-eta, energia saileko eragile guztiak akziodun izatera eraman ditu, eta irabazien gutxienez %57 kooperatiban berriz inbertitu behar ditu. Bestalde, Frantziak 2014ko uztailaren 31an bozkatu zuen ekonomia eraldatzailearen legeak tokiko erakundeei aukera ematen die SCIC horien kapitalaren %50 arte ukateko.

Proposatu du Ortzaize ENARGIAko sozio izan dadila. Kooperatibaren kapitalean sartuz, lurraldearen trantsizio ekologikoaren aldeko dinamika herritarra sostengatuko luke. Partehartze horrek suposatzen du hautetsi batek herria ordezkatu behar duela kooperatibaren erabakiguneetan.

Herri Biltzarrari proposatu dio, herria ENARGIA kooperatibako sozio bilakatzea, 50 €ko balioa duten bi parte erostea (orotara 100 €), Ortzaize herria ordezkatzeko duen hautetsiaren izendapena onartzea, eta enpresaren kapitalean parte hartzea herriko aurrekontutik egin ahal izatea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU, herria ENARGIA kooperatibako sozio izatea;

ERABAKI DU, 50 €ko 2 parte hartzea, hots orotara 100€ ;

Ramuntxo JORAJURIA jauna **IZENDATU DU,** kooperatibaren erabakiguneetan Ortzaize herri ordezkari dezan,

ERABAKI DU, kapitalean parte hartze herriko aurrekontuko 261 artikuluari esleitzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko martxoaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/03/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/03/08an.